Bilbok
arrastoa uzten du
Kultura
ABANGOARDIA
TRADIZIOA
eSperientziak
ARTE
KOSMOPOLITA
&ASTRONOMIA
PASEOAK
City
mendia
Ezoskeletak
Itzaso
PINTXOAK
bilbao
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
Doggy etorri!

Bilbok arrastoa uzten du

Bilbo helmuga paregabe bat da munduan zehar txakurrarekin dabiltzan bisitarientzat. Leku integratzaile eta polifazetiko bat da, eta edozein premia edo lehentasunetara egokitutako planen eskaintza zabala du.

Hemen elkarri lotzen zaizkio historia, tradizioa eta modernitatea, kultura gastronomikoa eta bertako jendearen izaera abegikorra.

Antonio Machadok zioen bezala: «Ibiltari, bidea zure oinatzak dira, eta ez beste ezer; ibiltari, ez dago biderik, ibilian egiten da bidea».

Gizaki batez eta txakur batez osatutako anfitrioi bikoteak izango ditugu. Gida honetan, haietako lau bikotek utzi dizkiguten arrastoei jarraitzea proposatuko dizugu. Bidelagun izango ditugu, kasu bakoitzean oso ezberdina den Bilbo bat erakusteko. Bilbori begiratzeko lau ikuspuntu eta Bilbo bizitzeko lau modu. Bidea ibilian egiteko lau modu. Bilbok arrastoa utz diezazula.

Aurkitu informazio gehiago Turismoa Euskadi webguneko «Euskadi txakurrarekin» atalean

Aurkibidea

Bilbo berdea: Egun bat Miguelekin eta Marirekin.....04
Bilbo klasikoa: Max eta Rafa, Bilboren hazkundea bertako plazen bidez.....08
Bilbo urdina: Itsasoa Nataliarekin eta Tacharekin.....12
Bilbo eklektikoa: Bilbo, aire zabaleko museoa Jessicarekin eta Hydrarekin.....16
Utzi arrastoa, baina arrasto ona: Informazio praktikoa:
- Dog-friendly garraioak.....22
- Hondartzetara txakurrarekin sartzea.....23
- Txakurrentzako aisialdirako eremuak.....24
- Dog-friendly saltokiak.....26

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Edizioa: 2022ko abendua | Tirada: 1.000 ale ©Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila | Argitaratzailea: BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA SA | Edukia, diseinua eta maketazioa:

Ana Fernández @anaefe |Argazkiak: Sergio Marcos eta beste egile batzuk | Inprimaketa: Printhaus SL

Debekatuta dago argitalpen honetako testuak, mapak eta irudiak zatika eta/edo osorik erreproduzitzea, erakunde argitaratzailearen eta egileen aldez aurreko baimenik gabe.

Hondartzei eta aisialdirako eremuei buruzko araudia 2022ko abenduan (liburuxka hau argitaratzen denean) indarrean dagoena da. Baliteke arau horiek aldatzea; beraz, kontsultatu informazio eguneratua. Horretarako, jarri harremanetan kasuan kasuko udalekin edo saltokiekin.

Bilbo bezdea

Bilbora irtetea, Miguel Carrozarekin eta Marirekin

Hona hemen Miguel eta Mari.
Miguel SER irratiko kazetaria da. Zinez maite ditu natura eta, berak esan ohi duen bezala, paretarik gabeko tokiak. Mendiak etxetzat ditu, eta bera nora doan, hara doa Mari, bidea pauso irmoarekin urratuz. Mari txakurtxo mestizo bat da, Euskal Artzain eta Border Collie arrazen arteko nahastea. Marik euskal mitologiako jainkosa nagusiaren izena darama, mendietako andrearena. Beraz, haiek baino hobeto nork gidatuko gaitu mendian gora eta nork erakutsiko digu han goitik Bilbo?

Artxandara 18-otzeko ez da ezinbesteko 8-ure anfitrioiak bezain mendizaleak izatea. Nahikoa da 15 minutu behin 18-o eta jaisten den funikularrera hurbiltzea. Txakurrarekin sar zaitezke bertara, eta 3 minutu baino ez dituzu behar-ko 8-ora iristeko.

https://funicularartxanda.bilbao.eus/eu

Bilbo mendiz inguratuta dago, eta horregatik **«Botxo»** deitu ohi diogu hemen maitekiro, zulo batean kokatuta baitago. Beraz, hiriaren ikuspegi panoramiko eder batez gozatzeko, inguruko edozein menditara igo besterik ez duzu; kasu honetan, **Artxandara** igoko gara. Hemendik, Bilboko itsasadarraren trazadura ikus daiteke, bai eta hiria sigi-saga itsasadarraren alde banatan nola hazi den ere.

Ibilaldi hau ezin hobea da zalapartatik urruntzeaz eta aire garbiagoa arnasteaz gain, hiria bere neurri eta distira osoan ikusi nahi dutenentzat.

Ikuspegi panoramikoa Artxandako begiratokitik

Artxandako «Aterpe 1936, Aztarna» eskultura. Juanjo Novellaren lan honek euskal herritarren eskubideak defendatu zituzten pertsona guztiak omentzen ditu.

Artxandako begiratokitik **Iturritxualde mendiraino** joango gara, **Bilboko Burdin Hesiko** lubakien hondakinak bisitatzera. 1936 eta 1937 artean eraikitako gotorleku-sistema honek Espainiako Gerra Zibilean Bilbo eta inguruko udalerriak armada frankistatik defendatzea zuen xede.

Guztira 80 kilometro luze zen, eta Euskadiko 33 udalerri zeharkatzen zituen.

Gehiago jakin nahi baduzu eta informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoa bisita dezakezu edo hemen sar zaitezke:

www.cinturondehierro.eus

Pikotamendi
Artxandako merenderoa

Hurrengo geldialdirako, atzera egingo dugu eta **Pikotamendira** zuzenduko gara. Eremu honetako bidezidor leunetatik zehar, hiririantz jaitsiko gara, **Artxandaren magaletik** behera, Bilboko ikuspegi panoramikoez gozatzen dugun bitartean. Zure txakurrak ederki gozatuko du ibilaldi atsegin honetaz.

Jaitsieran, arku gorri deigarri bat ikusiko dugu. Arku horrek Bilboko zubi ospetsuenetako bat koroatzen du: **Salbe zubia**, hain zuzen ere. Itsasontziak itsasadarretik Bilboko portura iristen ziren garaitik datorkio izen hori. Izan ere, zubi parean ikusten zen lehenengoz Begoñako Ama Birjina, eta une horretan marinelek Salbea abesten zioten Ama Birjinari.

Campo Volantin

Hirira itzulitakoan, ez galdu itsasadarraren ertzetik paseorik eder eta atseginenetako bat egiteko aukera. Izan ere, itsasadar hori Bilboren bizkarrezurra da, eta hari zor diogu gure iragan industriala. Hemen, zeuk erabaki aurrera jarraitu nahi duzun edo, Miguelek eta Marik bezala, merezitako atsedena hartuko duzun. Hemen esango digute agur.

Bilbo klasikoa

Rafa eta Max, Bilboren hazkundea bertako plazen bidez.

Rafael Gardeazabal eta Max

Bilbo klasikoenetik paseo hau egiteko, Rafaren eta Maxen begikotasuna eta ezagutza izango ditugu bidelagun. Bilboko jostundegi dotore eta ospetsuenetako baten jabea izan zen Rafa. Horrez gain, Bilbodendak Bilboko merkatarien elkarteko presidentea denez, erabat murgilduta dago Bilboko gizartean eta ekonomian, eta jarduera horregatik aitortza ere jasoa du.

Emazteak eta biek Max adoptatu zuten. Aurretik, tratu txarrak jasan zituen txakurtxo bat harreran hartu zuten etxean. Familia adoptatzailea agertu zenean, hain dramatikoa izan zen banaketa ezen Maxek eta emazteak argi eta garbi ikusi baitzuten beren bizitzetan txakur bat behar zutela, baina behin betiko. Horrela iritsi zen Bitxoi maltar txiki bezain bizi hau, etxeko arreta guztiak erakartzen dituena.

Haiekin batera errepasatuko dugu Bilboko hirigintzaren historia, bertako plazen bidez; izan ere, plazak elkartzeko eta bat egiteko tokiak dira, atseden hartzeko eta entretenitzeko (gizaki zein txakurrentzat).

Casilda Iturrizar parkean txakurren aisialdirako gune bat dago. Bertan, txakurrak, uhalik gabe, korrika eta jolas egiteko aukera izango dute. Hala, gero urduritasunik gabe eta lasai-lasai ibili ahal izango dira hirian (kontsultatu orduteguak 25. orrialdean).

Arte Ederren Museoko plazan hasiko dugu ibilaldia. Ia ohartu gabe, **Casilda Iturrizar parkera** iritsiko gara. Abandoibarra eta Zabalgunea lotzen dituen parke hau hiriaren birika da.

Parkea 1876an proiektatu zen, Bilbo zabaltzeko hirigintza-planaren barruan. Obrak, ordea, 1907an hasi ziren. Ricardo Bastida arkitektoak eta Juan de Eguiraun ingeniariak diseinatu zuten. Estilo erromantikoa eta frantsesa uztartu egiten dira haren zumardi zuzenetan; horrez gain, lorategi botaniko biribila, bidexkak, urmaelak, iturriak eta abar ditu. Urmael nagusira hurbiltzen bazara, hainbat ahate mota, beltxargak eta paumak ikusi ahal izango dituzu. Hortik datorkio «Ahateen parkea» lagunarteko izena.

Federico Moyua plaza

Gure bideari jarraituz, **Campuzano plaza** bisitatuko dugu lehenik eta **Indautxu plaza** bigarrenik. Ondoren, **Federico Moyua plazara** edo **Plaza Eliptikora** iritsiko gara. Plaza hori Bilboren bihotzean dago, hiriaren bizkarrezurra den Kale Nagusiari dagokion trazaduraren erdiko puntuan. Bertatik ikus ditzakezu Carlton hotelaren eraikina eta Chavarri Jauregia, Eusko Jaurlaritzaren Ordezkariordetzaren egoitza; bi eraikin horiek interes arkitektoniko handikoak dira.

Moyuatik 5 minutura, **Jado plazara** iritsiko gara; hiru lehoien iturri ikusgarria du. Handik Kale Nagusira irtengo gara berriro, eta **Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregira** hurbilduko gara (Euskal Herriko arte garaikideko eklektizismoaren adibiderik onena dela diote).

Eta beste bost minutu pauso lasaian egin ondoren, Rafak eta Maxek **Albia lorategira** eramango gaituzte, Ibañez de Bilbao kaleak, Colon de Larreategui kaleak eta Mazarredo zumarkaleak bat egiten duten tokian. Lorategidun plaza pintoresko honetan zenbait eskultura daude, bai eta erdian iturri bat duen urmael bat ere. Plaza hau aproposa da etenaldi bat egiteko, ingurune atseginean, zuhaitz eta palmondo handien itzalpean.

Hurbildu Plaza Biribilean dagoen Bilboko Turismo-bulegora, dagoeneko hala egin ez baduzu, eta eskatu «Euskadi txakurrarekin» bida turistikoa. Euskadi oso handia da, eta makina bat leku interesgarri ditu, bai eta zure txakurrarekin egiteko moduko plan mordoa ere.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Jauregia

Bilboko Zabalguneko gure azken interesgunea **Konkordia geltokia** izango da. Valentín Gorbeña ingeniariak eta Severino Achúcarro arkitektoak proiektatutako geltoki honek estilo modernista du. Zeramikak, kristalak eta burdina forjatuak Bilboko Belle Époquearen ordezkari eder bihurtu dituzte haren lerro estetikoak.

T'XAKURRAREN ITURRIA: LEKU ENBLEMATIKOA ETA DERRIGORREZKO GELDIALDIA ZURE T'XAKURRA FRESKATZEKO, IBILALDI LUZE HONEN ONDOREN.

Gure ibilbideko azken etapan, **Alde Zaharretik**, hiriko erdigune historikotik, kalez kale ibiltzea proposatzen digu Rafaelek. Oinezkoentzako gune honek aukera paregabea eskaintzen du bertako ondarea miresteko, nano-gastronomia* kontzeptua ezagutzeko eta «betiko Bilboko» denden merkataritza-eskaintza zabala baliatzeko. Eta, amaitzeko, pintxo batzuk **Plaza Barrian**.

* NANO-GASTRONOMIA: GURE PINTXOAREN ETA TAMAINA TXIKIKO GASTRONOMIAZ GOZATZEAREN KULTURA.

Done Jakue katedrala

1643TIK HIRIKO PATROI OFIZIALA DEN JAKUE APOSTOLARI SAGARATUA. XV. MENDEAN ERAIKI ZUTEN, ETA ESTILO GOTIKOA DU. DORREA ETA PATXADA, BAINA, NEOGOTIKOAK DIRA. CATEDRALBILBAO.COM

Bilbo urdina

Itzasoa, Nataliarekin eta Tacharekin

Natalia Zubizarreta + Tacha

Oraingoan Natalia eta Tacha izango ditugu bidelagun. Natalia barne-diseinuko irakaslea da IED Kunsthalen; espazioen diseinuko eskolak ematen ditu bertan. Eta barruko espazioen zale diren arren, elkarrekin aire zabaleko planez gozatzen dute gehien, Kantauri itsasoari begira eta kresala usainduz. Tacha txakurtxo grifoi ile hori bat da, eta bi urte zituela iritsi zen Nataliaren bizitzara. Aurretik, ordea, bitan abandonatu zutenez, animalien babesleku batean egon zen. Nataliaren ezkutari fidela da; beraz, ez harritu Nataliaren proiektuen argazkietan ikusten baduzu, aldizkari eta sare sozialetan; biak banaezinak baitira.

Kontakizun bat: Tacha izena Natashatik dator; errusieraz Natalia izenaren txikigarria izango litzateke.

Proposatutako ibilaldian Bilbo Handiko kostaldearen zati bat ezagutuko dugu: **Abrako badia**. Kostaldearen ertzetik ibiliko gara. Ibilbide lasai bat da, eta geldialdiak egingo ditugu gizakiaren eta lagun iletsuaren gozamenerako. Txakurrak hondarretan korrika egin eta beste txakur batzuekin jolasteko aukera izango du. (Kontsultatu indarrean dagoen araudia 23. orrialdean).

Gure ibilbideari **Bizkaia Zubian** ekingo diogu; **Zubi Esekia** izenez ezagutzen da. 61 metroko burdinazko erraldoi hau XIX. mendearen amaieran eraiki zuten itsasadarraren bi ertzak lotzeko. Egitura metalikoa duen munduko lehen zubi transbordadorea da. Industria Iraultzaren sinboloa da, eta UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zuen haren edertasun eta berezitasunagatik.

www.puente-colgante.com/eu

Eta, jakina, alde batetik bestera igaro zaitezke zure txakurrarekin (40 ra arteko txakurra ontzitxoaren kanpoaldean.

Geniago jakin nahi

Ondoren, **Evaristo Txurruka kai-muturrera** joango gara, Abraren (Nerbioi ibaiaren bokalea) ikuspegi orokorra izateko. Gero, **Etxe Handien pasealekutik** jarraituko dugu oinez. Getxoko jauregi-arkitektura ezagutzeko leku aproposa. Eraikinak XIX. mendearen amaieraren eta XX. mendearen hasieraren artean eraiki zituzten, besteak beste, Manuel María Smith, Severino Achucarro edo Ricardo Bastida arkitekto bikainek. Garai distiratsuen eta Areetan bizi zen gizarte burgesaren isla dira.

Ibilbidean zehar 29 interpretazio-panel topatuko dituzu. Panelok garai hartan nagusi izan ziren arkitektura-estiloak identifikatzen lagunduko dizute.

Pixkanaka, **kirol-portura** iritsiko gara. Aisialdira bideratutako gune honetan, denda-, jatetxe- eta ostalaritza-eskaintza handia dago.

Ikuspegiak Portu Zaharretik

Hurrengo geldialdia zinez atsegingarria izango da gure txakurrarentzat: **Ereagako hondartza***. 882 metro luze den hareatza hau Getxoko udalerrian dago, Algortako Portu Zaharraren eta Arriluzeko kai-muturraren artean. Hondoan Serantes mendia eta Portugalete ikusten dira, eta jauregitxoz eta etxetzarrez inguratuta dago.

*Ereagako hondartza

*Tacharen lekurik gogokoenetako bat da, bertan aztarrika egin, olatuekin jolastu eta beste txakur batzuk ezagutzeko aukera baitu.

PINTXO

Erritmorik galdu gabe, geldialdi bat egingo dugu **Algortako Portu Zaharrean**. Toki pintoresko hau aproposa da Bizkaiko txakolinaz eta gilda batzuez gozatzeko. Atzera begiratuz gero, egindako ibilbidea ikusiko dugu. Arrantzale-auzo honek kolore alaiko etxeak eta xarmaz betetako kalexka estuak ditu.

Tachak ere behar zuen etenaldia egitea, hainbeste jolas egin ondoren indarberritzeko.

Gure bidea jarraituz, **Usategi parketik** igaroko gara **Galeako itsaslabarretarantz**. Hemendik beherantz begiratuz gero, Arrigunaga hondartza ikusiko dugu. Bide batez, argazki bat egingo dugu **Aixerrotan**. 1726an eraiki zen, eta inguruko erakargarri turistiko nagusietako bat da.

Portu Zaharra

Aixerrota

Itsaslabarretatik jarraituko dugu, ikuspegi ikusgarriez gozatzen, eta Berangoko **Gorrondatxe/Azkorri hondartzara** iritsiko gara. Hemen amaituko da gure ibilaldia. Hondartza hau oso berezia da hain berezkoa duen soropilagatik eta «urrezko iltze» bat izateagatik; urre koloreko bereizgarri hori Geologia Zientzien Nazioarteko Batasunak ematen die geologia-geruzen munduan berezitasun eta propietate bereziak dituzten tokiei.

Hemengo harkaitzetan denboraren joan-etorriak utzitako arrastoa ikus daiteke, 48 milioi urteko antzinatasuna duten geruzak baitaude.

Azkorri hondartza

Bilbo ekléktikoa

Bilbo, aire zabaleko museoa, Jessica Llorenterekin eta Hydrarekin.

Hemen, Jessica eta Hydra aurkeztuko dizkizugu. Esan liteke Jessica txikitatik izan dela bere bizitza txakurrik gabe imajinatzen ez duen pertsona horietako bat. Lehenik Perla izan zuen, gero Dana etorri zen, eta orain Hydra du beti ondoan. Hydra errepidean aurkitu zuten, abandonatuta, hanka bat hautsita zuela, eta hori izan zen haren zorte-kolpea; izan ere, Jessicak animalien babeslekuko txakurrak adoptatzeko zerrendan ikusi zuenean, ez zuen zalantza izpirik izan.

Lehen begi-kolpeko maitasuna izan zen.

Jessica diziplina anitzeko artista bat da, argazkilaria, bideografoa... eta benetako ibiltari bat. Bera eta Hydra bidelagun izango ditugu Bilbon zehar artea eta kultura ardatz hartuta egingo dugun ibilbidean. Asko dago ikusteko!



Gure ibilbidea leku enblematiko batean hasiko dugu: **San Antongo elizan eta zubian**. Bi elementu horiek Bilboko armarriaren parte dira, eta gure kaleetako edozein plakari erreparatzen badiozu, obalo urdinaren goian, bi otsoren ondoan agertzen direla ikusiko duzu.

Jessica **Bilbo Zaharrean** bizi da. Inguru honi **«Bilbi»** deitzen zaio; giro paregabea du, eta bertan topo egiten dute, besteak beste, modak, arteak eta egile-sukaldaritzak. Beraz, Jessica lagun dugula, batera eta bestera ibiliko gara, eta Erriberako merkatua bisitatuko dugu, bai eta itsasadarrari begira duen terraza ere. Ondoren, Erriberako zubia zeharkatu eta **Areatzarantz** abiatuko gara.

Bidean **Arriaga antzokiarekin** egingo dugu topo. XIX. mende amaierako eraikin neobarroko eder hau Joaquín de Rucoba arkitektoak egin zuen, eta Parisko Operan dago inspiratua.

Arriaga antzokiak Juan Crisostomo de Arriaga bilbotar konpositoreari zor dio bere izena. Arriagari Mozart hispaniarra deitzen zioten haren talentu goiztiarragatik; 13 urterekin bere lehen opera konposatu zuen. Hura bai prodigioa!

Bilbon zehar, zure txakurrarekin batera ibili nahi baduzu Barrako publikoan, Euskotren tranbiak aukera ederra eskaintzen dizu.
- Tamaina-mugarik gabe.
- Uhalarekin lotuta.

Gourmet eroskетak egiteko:
www.mercadodelaribera.biz

Ikuskizun on bat ikusteko:
www.teatroarriaga.eus

1- San Antongo zubia eta eliza
2- Bilbo Zaharra
3- Martzana kaia
4- Erriberako merkatua
5- Erriberako zubia
6- Arriaga antzokia
7- Areatzako kioskoa
8- Erripako kaia
9. Bilboko udaletxea
10- Zubizuri
11- Uribitarte pasealekua
12- Isozaki atea
13- Ingelesen Landako kaia
14- Guggenheim Bilbao museoa
15- Memoriaren pasealekua
16- Iberdrola dorrea
17- Deustuko Unibertsitatea

Areatzako lorategiraino jarraitu dugu. Itsasadarraren ertzeko parke hiritar hau barnealdeko hondartza moduko bat izan zen —hortik datorkio izena—, itsasontzien ontzitegi eta ontziolen kokaleku. Zuhaitz altuak, lorategiak eta urmaelak dituen parke polit bat da, txakurrarekin paseatzeko edo atseden hartzeko paregabea.

Estilo erromantikoko musika-kiosko biribil bat ere ikus dezakegu bertan. Pedro Ispizuak eraiki zuen 1928 urtean.

Ondoren, **Erripako kaira** joango gara, **Uribitarte pasealekurantz**, eta, handik, itsasadarraren beste aldean, **Bilboko udaletxea** ikusiko dugu. Joaquín Rucoba udal-arkitektoak eraiki zuen, Frantziako Bigarren Inperioaren estiloan.

Areatzako kioskoa

Areatza

Uribitarte pasealekua

18- Euskalduna jauregia
19- Botikazaharreko parkea
20- Carola garabia
21- Itsasmuseum Bilbao
22- San Mames estadioa
23- Olabeaga

Uribitarte pasealekuan barrena, hainbat interesgune aurkituko ditugu, besteak beste:

Santiago Calatrava arkitektoaren zubia, **Zubizuri**, Uribitarte eta **Campo Volantin** lotzen dituena.

Isozaki Atea gunea Arata Isozaki arkitekto japoniarrak eraiki zuen. Hiriko ate bat diseinatu nahi izan zuen, XXI. mendean Zabalgunea eta itsasadarra lotuko zituena. Bi dorre biki handik eta Bilbon Erromako Espainia Plaza islatzen duen harmailadi handi eta deigarri batek osatzen dute multzo osoa.

Eta **Ingelesen Landan** ongi etorria egingo digu Ama izeneko brontzezko eskultura bereziak. Eskultura hau Louise Bourgeoisek egin zuen, eta **Guggenheim museoaren** atzeko aldean dago.

Puente Zubizuri de Santiago Calatrava

Guggenheim Bilbao museoaren ingurua

Ingelesen Landa eta Guggenheim museoaren ingurua atzean utzi, eta **Evaristo Txurruka kai** zaharretik aurrera egingo dugu. Gaur egun toki honi **Memoriaren pasealekua** deritzo, iraganean eremu horrek izan zuen industria-jardueraren oroimenez. Ibilaldi honetan, bertako eta nazioarteko artisten eskultura interesgarrien bilduma bat ikus daiteke.

Itsasadarraren beste aldera begiratuz gero, Unibertsitate etorbidea ikus dezakegu. Deustuko Unibertsitatea da eraikin protagonista. Francisco de Cubasek estilo eklektikoan diseinatutako eraikin hori 1886an eraiki zuen Jesusen Lagundiak.

Deustuko Unibertsitatea

Bilboko hiriak iturri publiko asko ditu, eta haiek kalitate handiko edateko ura eskaintzen dute. Bero handiko egunetan denbora luzean oinez ibili behar baduzu, gogoratu zure txakurra hidratatzeaz. Bilbon errez aurkituko dituzu horretarako iturriak.

Gure ibilbideari berriro helduz, **Euskalduna jauregiarekin** egingo dugu topo. Corten altzairuz egindako eraikin hau Dolores Palacios eta Federico Soriano arkitektoek diseinatu zuten, eta antzinako Euskalduna ontzioletan eraikitako azken itsasontzian dago inspiratuta; izan ere, iragan industrialean leku honetan zeuden ontziola horiek.

Gaur egun, kongresuen eta ikuskizunen jauregi bat da, eta programazio zabala eskaintzen du. Hemen kontsulta dezakezu:

www.euskalduna.eus/es

Gure hurrengo geltokia **Itsasmuseum itsas museoa** da, hiriak duen itsas ondarea zabaltzen diharduena. Antzinako dikeetan zenbait ontzi ikus daitezke, bai eta lehergailuen etxea ere eta, nola ez, Carola garabia, zeina gure iragan industrialaren aztarna eta Itsasmuseumeko erakusketaren zati bat den.

www.itsasmuseum.eus

Azkenik, benetako futbolzaleentzat Bilbon enblematikoa den leku batera iritsiko gara, Katedralera, edo, berez deitzen den bezala, **San Mames estadiora**. Bilboko gune berri batean dago. Unibertsitate-eremu bat da eta turisten joan-etorri handia dago, Bilbao Intermodal autobus geltokia oso gertu baitago.

Gure ibilaldiaren azken geltokia. Hemen agur esango diegu Jessicari eta Hydrari, eta amaitutzat emango ditugu Bilbon zeharreko gure ibilaldiak. Zure txakurrarekin batera Bilbon ezagutu eta oinez bisita dezakezun guztiaren lagin txiki bat besterik ez da hau. Espero dugu utziko zizula arrastoren bat.

Utzi arrastoa, baina arrasto ona ✓

Informazio praktikoa:

Jakin jakin beharreko guztia, Bilbora egindako bisitak arrasto ona utz dezan. **Politikak** eta **araudiak**, **gomendioak**, **dog-friendly saltokiak**, txakurren a**isialdirako guneak** eta zu eta zure txakurra ongi etorriak zareten **garraioak**.

Dog-friendly garraioak

BILBOKO TRANBIA
www.euskotren.eus
Bilboko tranbian, tamaina guztietako txakurrekin batera bidaiatu ahal izango duzu, betiere uhalarekin lotuta eramaten badituzu.

BILBOBUS
www.bilbao.eus
Zurekin eraman ditzakezu, betiere garraio-ontzi barruan.

EUSKOTREN
www.euskotren.eus
Euskotreneko lineetan, tamaina guztietako txakurrekin batera bidaiatu ahal izango duzu, betiere uhalarekin lotuta eramaten badituzu.

RENFE (ALDIRIKOAK)
www.renfe.com
Txakurrak garraio-ontzian eraman beharko dira, edo, bestela, uhalarekin lotuta eta mozalarekin.

METRO BILBAO
www.metrobilbao.eus
Gehienez 8 kg-ko txakurrak eraman daitezke, uhal batetik helduta eta pertsonaren besoetan.

TAXIAK
Deitu telefonogunera eta esan txakurrarekin bidaiatu behar duzula; haiek ibilgailu egoki bat bilatuko dizute.

Radio Taxi Bilbao: 944 488 888
www.taxibilbao.com
Teletaxi Bilbao: 944 192 121
www.teletaxibilbao.com
Radiotaxi Nervión: 944 269 026
www.radiotaxinervion.com

ARTXANDAKO FUNIKULARRA
https://funicularartxanda.bilbao.eus/eu/hasiera/
Arriskutsua izan daitekeen txakurtzat hartzen ez diren txakurrak zurekin eraman ditzakezu, betiere lotuta eta mozala jantzita. Arriskutsua izan daitekeen txakurtzat hartzen diren txakurrak ezingo dira funikularrera igo.

BIZKAIBUS
https://web.bizkaia.eus/
Txakurrak zurekin eraman ditzakezu, betiere 8 kg-tik beherako pisua badute eta garraio-ontziaren barruan bidaiatzen badute.

BIZKAIKO ZUBIA
www.puente-colgante.com
40 kilo arteko txakurrak doan sar daitezke bidaiarien alboko konpartimentura, baldin eta uhalez lotuta badaude edo garraio-ontziaren barruan badoaz. Tamaina guztietako txakurrak eraman daitezke gabarra nagusian, estali gabekoan.
Txakurren segurtasuna dela eta, ezin da haiekin goiko pasabidera igo.

Hondartzetara txakurrekin sartzea

Zure txakurrarekin batera hondartzan gozatu nahi baduzu, udal-araudiari jarraikiz, hauek dira txakurrarekin batera sar zaitezkeen hondartzak eta horretarako ordutegiak. Hondartzetako karteletan kontsultatu ea txakurrak aske ibil daitezkeen edo uhalak erabiltzea derrigorrezkoa den.

SASOITIK KANPO

Ordutegi-murrizketarik gabe:

Urriaren 1etik maiatzaren 31ra:
- Arena hondartza (Zierbena)

Azaroaren 1etik apirilaren 30era:
- Sopelako hondartza
- Barinatxe hondartza (basatia)

Ordu-murrizketarekin:

Urriaren 1etik apirilaren 30era.
16:00Etatik 11:00etara.
- Ereagako hondartza
- Arrigunaga
- Areeta

BAINU-DENBORALDIAN

Ordu-murrizketarekin:

Aste Santutik urriaren 12ra arte, hondartzarako sarbidea izango duzu 21:00etatik 06:00ak arte hurrengo hareatzetan:
- Gorrondatxe/Azkorri
- Sopelako hondartza
- Barinatxe hondartza (basatia)
- Azkorri

Txakurren aisialdirako eremuak

Getxo

Getxok 22 aisialdi-gune ditu (328.261 m2-ko azalera). Eremu horietan, txakurrak aske, baina kontrolpean, ibili ahal izango dira 16:00etatik hurrengo eguneko 11:00etara. Txakurra kontrolpean izatea zera da, txakurra jabearen ondoan ibiltzea, haren aginduak betez eta jendeari enbarazurik egin gabe. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrek gehienez 2 m-ko uhala izan beharko dute eta mozala jantzita eraman beharko dute.

Etorkizunean itsiera izango duten guneak
Zonas con cierre en un futuro próximo

Itsierarik gabeko guneak
Zonas sin cierre en vigor



Bilbo

Bilboko Udalak txakurrentzako aisialdirako guneak prestatu ditu parkeetan. Guneok seinaleztatuta daude eta ordutegiak ere zehaztuta daude. Gune horietan txakurrak aske (uhalik gabe) ibil daitezke.

Animalien jabeek edo animaliekin batera doazen pertsonek animaliak edukitzeari buruzko ordenantzaren baldintza guztiak beteko dituzte, bereziki gorotzak biltzeari eta animaliak une oro kontrolpean mantentzeari buruzkoak. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliek EZIN izango dituzte zona horiek erabili. **Ordutegia: Neguan** (azarotik maiatzera): 19:00etatik 11:00etara. **Udan** (ekainetik urrira): 20:00etatik 11:00etara.

Parkeko aisialdirako guneak informazio-kartelen bidez seinaleztatuta daude.

Bilbon txakurrentzako aisialdi-guneak dituzten parkeak honako hauek dira:



DOG-FRIENDLY ESTABLEZIMENDUAK

Hemen dog-friendly saltoki ugari aurkituko dituzu; zu eta zure txakurra ongi etorriak izango zarete. Gogoan izan joaten garen lekuetan beti uzten dugula arrastoa. Izan dadila ona zuk utzitako arrastoa, gero eta leku gehiagotara joan ahal izateko elkarrekin.

TABERNAK ETA JATETXEAK

BARAKALDO

Lula´S Bakery
+34 611 512 916

BILBO: ABANDO

Tegobi Bierhaus
+34 688 745 094

Antigua Cigarrería
+34 944 248 973

Basquery
+34 944 072 712

Copper Deli Mazarredo
+34 946 570 899

Coppola + Solomonk Bilbao
+34 944 249 463

De Boca Madre
+34 944 103 552

Gin Fizz Bilbao Cocktail Bar
+34 617 338 345

La Camelia Vegan Bar
+34 946 112 612

Morrocotuda
+34 671 765 241

Mr. Marvelous
+34 944 249 759

Promenade Bilbao
+34 944 070 429

Residence
+34 635 727 468

Porrue jatetxea
+34 944 231 313

Sumerian Club
+34 944 677 924
+34 634 807 165

BILBO: ABANDOIBARRA

Dock Bilbao
+34 944 024 643

Terraza Quatre - Meliá hotela
+34 944 280 000

Txocook
+34 944 005 567

BILBO: BILBO ZAHARRA

Alpamayo euskal perutar taberna eta jatetxea
+34 944 715 967

Nervión kafetegia
+34 944 169 189

El Laterío
+34 665 948 696

Happy River Bilbao
+34 682 113 713

Txukrut Vegan Bar
+34 946 411 504

BILBO: ALDE ZAHARRA

Bar Plaza Unamuno
+34 944 987 741

La Ley Seca
+34 628 927 968

Lurrina
+34 944 163 277

La bodega de Ola
+34 944 652 070

The Beetle Bar
+34 944 009 872

BILBO: CASTAÑOS

Restaurante Zubizuri (Terraza)
+34 944 057 752

BILBO: DEUSTO

Deustoarrak
+34 944 754 154

BILBO: INDAUTXU

Casa Del Café Y Del Té
+34 944 416 665

Garibolo
+34 944 223 255

Vía De Fuga
+34 944 001 348

BILBO: MIRIBILLA

Clover House
+34 946 039 312

BILBO: KOBETAMENDIA

Cervecera Cobetas (Terraza)
+34 944 271 002

BILBO: OLABEAGA

La Lonja De Olabeaga
+34 662 300 994

BILBO: SANTUTXU

Taberna Astuy
+34 944 051 363

GETXO

Aremuna
+34 655 119 644

Goiezti erretegia
+34 944 912 593

Don Peppone
+34 944 644 330

El Laterío
+34 665 948 696

La Ola
+34 944 606 722

Fadura jatetxea
+34 946 569 755

Ekia taberna
+34 944 607 275

Txinuk Beertoki
+34 946 413 028

PORTUGALETE

Casa Vicente
+34 944 961 448

OSTATUAK

BILBO: ABANDO

Zubia Urban Rooms
+34 944 248 566

BILBO: ABANDOIBARRA

Meliá Bilbao
+34 944 280 000

BILBO: ARANGOITI

Next Stop Bilbao (Aapartamentu turistikoak)
+34 670 783 940

BILBO: ATXURI

Hotel Gran Bilbao ****
+34 944 328 575

BILBO: BASAURI

Bilbao Hostel
+34 944 270 054

BILBO: ALDE ZAHARRA

Casual Bilbao Gurea
+34 944 163 299

NYX Bilbao hotela
+34 946 790 279

Petit Palace Arana Bilbao hotela***
+34 944 156 411

Hotel Tayko Bilbao
+34 944 652 070

BILBO: INDAUTXU

Ercilla hotela****
+34 944 705 700

BILBO: MONTE ARTXANDA

Artetxe hotela
+34 944 747 780

GETXO

Getxo Tranquility apartamentua
+34 650 282 944

Embarcadero hotela
+34 944 803 100

Petit Palace Tamarises Bilbao hotela***
+34 944 915 092

SANTURTZI

URH Palacio De Oriol
+34 944 934 100

SESTAO

Naval Sestao hotela
+34 944 186 216

SALTOKIAK

BARAKALDO

Bizislow
+34 946 125 235
+34 688 774 651

Leroy Merlin Barakaldo
+34 944 859 600

La Florida farmazia
+34 944 370 356

BILBO: ABANDO

El Almacén Secreto 3.0
+34 944 742 484

La Barbería Del Norte
+34 944 740 128

Lanería Tricotoki
+34 944 010 468

BILBO: ALDE ZAHARRA

Aparté moda eta osagarriak
+34 944 151 778

Cardenal Casco Viejo
+34 944 157 586

Gys Sport Dalmau
+34 944 656 213
+34 944 238 362

La Fabrique ile-apaindegia
+34 944 069 939

Maldeojo Optika-Atelierra
+34 946 029 676

Padiber altzariak
+34 944 160 370

Jesús optika
+34 944 792 110

Original Tea Casco Viejo
+34 944 412 804

Semillas Antuñano
+34 944 156 094

Tuinkis American Market
+34 946 056 760

BILBO: DEUSTO

Julio Aristin dekorazioa eta interiorismoa
+34 944 479 924

BILBO: INDAUTXU

Avenue Hair Salon
+34 944 658 658

Cardenal Indautxu
+34 946 404 232

Koena Salud
+34 946 856 584

Mil Rosas Bilbao
+34 944 152 791

Original Tea
+34 944 412 804

Tapicerías Ricardo
+34 944 214 437

BILBO: MIRIBILLA

Ametsak
+34 946 555 235/+34 667 905 166

BILBO: MOYUA

Ongizate psikologia integraleko zentroa
+34 946 415 216

La Favela ile-apaindegia
+34 686 461 717

BILBO: SAN MAMÉS

Aloklub
+34 722 722 287

George y Mildred. Diseinu- eta branding-estudioa
+34 944 417 626

BILBO: SANTUTXU

Flor De Hibisco belar-denda
+34 946 072 770

ERANDIO

Natalia Zubizarreta Interiorismo
+34 627 534 847

Txorierri Kirolak Surf
+34 944 671 966

GETXO

Fincas Euskadi
+34 946 540 733

Sofás Cama Galea
+34 944 302 870

Vito, 52 zapata-denda
+34 944 910 359

Arte Barria
+34 944 316 103

Nui Style
+34 646 282 061

LEIOA

Leroy Merlin Artea
+34 944 819 200

PORTUGALETE

Sportlandia kirolak
+34 944 617 971

SANTURTZI

Soho Surfshop
+34 944 839 082

ZER EGIN

BILBO

Nis - North Incoming Service bisita gidatua Bilbora, 2 edo 4 ordu
+34 944 255 830

Bilbao Green Tours jasangarritasunaren filosofian oinarritutako ibilbide eta txango gidatuak, 0 km-koak eta txakurrarekin.
+34 677 024 643

BILBO: ABANDO

Bilboko turismo-bulegoa
+34 944 795 760

Tourné Bilbao. Bizikleta-ibilbideak eskaintzen dituzte; horrez gain, tamaina guztietako txakurrentzako saskidun bizikletak eta karga-bizikletak alokatzen dituzte.
+34 944 249 465

BILBO: ALDE ZAHARRA

Bilbao Xperience. Bizikleten, paddle surfen alokairua, ginkanak eta abar. Bilboz gozatzeko mota guztietako jardueran
+34 688 608 184

GETXO

El Bote Tours Getxo, paseo gidatuak txalupan, Bilboko itsasadarrean zehar
+34 605 014 365

Sailing And Wine paseoak belaontzian
+34 667 408 858

Getxoko turismo-bulegoa
+34 944 910 800

Marmitako Sailing (belaontzia Getxon), belaontzi-irteerak Kantauri itsasertzera eta Bilboko itsasadarrera. Gure txakurrek eta lagun ditugun beste txakur batzuek gurekin batera gozatzen dute belaontziaren bizkarrean, eta beti da atsegingarria jendea eta haien txakurrak ontzian hartzea.
+34 609 303 327

LEIOA

Ekobideak, Bizkaiko geoturismoaren inguruko irteerak
+34 666 857 761

SANTURTZI

Santurtziko turismo-bulegoa
+34 944 839 494

TXAKUR-NEGOZIOAK

BARAKALDO

Txakur Eskola
+34 944 388 626

Déjà Vu, maskoten ile-apaintzailea
+34 687 127 221

BASAURI

Ori Basauri pentsuak, txakurrentzako denda
+34 617 972 548

BILBO

Facedog
+34 636 620 796

Indomable
+34 946 087 042

Reguaupos txakurren ile-apaindegia
+34 657 134 024

Troylo animalien osasuna eta ongizatea
+34 680 283 045

Indartsu Txakur Taldea
+34 665 719 304

Mestizaa Fotografía Para Una Vida Muy Perra.
+34 645 734 952

P. Zabalburu ikuztegia eta nork bere txakurra garbitzeko gunea
+34 695 787 510

Patrizia Zubieta txakurren argazkiak
+34 686 142 529

Szenia txakurren ile-apaindegia
+34 944 105 697

El Almacén telepentsua: Albaitaritzako farmazia, ile-apaindegia, elikadura eta osagarriak
+34 944 457 737
+34 638 247 227

Pet Nature: Albaitaritzako farmazia, ile-apaindegia, elikadura eta osagarriak
+34 944 395 130
+34 638 247 227

Ileak Pet Nature: Albaitaritzako farmazia, ile-apaindegia, elikadura eta osagarriaks
+34 944 764 045
+34 638 247 227

BILBO: AMETZOLA

Kni2 txakurren heziketa
+34 659 320 653

BILBO: INDAUTXU

Mimopets, txakurren ile-apaindegia eta spa (Ozonoterapia)
+34 672 918 726

Txakur Etxea txakurtzaindegia
+34 615 705 653

BILBO: MATIKO

bizuri txakurren ile-apaindegia
+34 672 767 556

ERANDIO

Guau Guau txakurren ile-apaindegia
+34 946 557 460

GETXO

Txintxo Denda txakurren ile-apaindegia
+34 944 912 322

Animalex abokatutza eta aholkularitza
+34 613 019 579

LEIOA

Katukan
+34 944 801 831

SESTAO

Zaunka Ladridos. Maskotentzako aisialdi-zentroa
+34 946 520 673

CLÍNICAS VETERINARIAS

ARRIGORRIAGA

Arkakuxo albaitari-klinika
+34 946 712 726

BARAKALDO

Adei albaitari-zentroa
+34 946 121 453

BILBO: ABANDO

Ensanche albaitari-klinika
+34 944 246 826

BILBO: AMETZOLA

Etxepet albaitari-klinika
+34 944 101 212

BILBO: BILBO ZAHARRA

Saralegi albaitari-zentroa
+34 946 851 228

BILBO: DEUSTO

Bidarte albaitari-klinika
+34 94 4750 224

BILBO: LA PEÑA

Garay albaitari-klinika
Larrialdiak 24 orduetan
+34 944 164 070

BILBO: MATIKO

Campo Volantín albaitari-klinika
+34 944 465 333

BILBO: MIRIBILLA

Nuevo Ensanche albaitari-klinika
+34 944 432 702

BILBO: SAN MAMÉS

Garellano albaitari-klinika
+34 944 742 188

Avenida albaitari-ospitalea
Larrialdiak 24 orduetan
+34 944 424 040

GETXO

Algorta albaitaritza-zentroa
+34 944 362 970

Bikelnor albaitari-klinika
+34 944 303 226

Maidagan albaitaritza-zentro medikoa
+34 944 913 256

LEIOA

Artaza albaitaritza-zentroa
+34 944 802 735

SANTURTZI

Santurtzi albaitari-klinika
+34 944 833 037

Tucan albaitari-ospitalea
+34 944 615 077

SESTAO

Sestao albaitari-klinika
+34 944 722 239

GARRAIOAK

Taxi 021 Bilbao Aitziber
+34 665 703 751

Ezinbesteko

10 ak

Asko dira Euskadi ezinbesteko jomuga bihurtzen duten arrazoiak.
Berehala konturatuko zara bertako jendea eta historia ezagutzen duzunean, hiriek arnasten duten ondarea ikustean, eta, harik eta hobeto, mahai on baten inguruan iruzkintzen duzunean.





















www.euskaditurismoa.eus

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO